# I ARABAKO FORU ALDUNDIA I
# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**1.176**

**90/2003 ERABAKIA, otsailaren 18ko Diputatuen Kontseiluarena; horren bidez, behin betiko onarpena ematen zaio Kanpezuko Udalerrirako egin den Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren pekoa den hiri lurzoruaren mugaketari.**

Azaroaren 14ko 624/2002 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Kanpezuko Udalerrirako egin den Ondasun Higiezinen gainek Zergaren pekoa den hiri lurzoruaren mugaketa berriari. Hiri lurzoruaren mugaketa egitean Plangintzaren Ordezko Arau berriak (abenduaren 31ko 172/1999 Foru Dekretua, apirilaren 11ko 285/2000 eta uztailaren 27ko Foru Aginduak onartu zituen) eta Testu Bateratua (urriaren 28ko 1.024/2001 Foru Aginduak onartu zuen) hartu ziren kontuan.

Araudi horren xedapen zatiko 4. artikuluak onarpen egintza hori Kanpezuko Udalari jakinaraztea agintzen zuen. 2002ko azaroaren 14an bete zen hori eta Kanpezuko Udalak 2002ko azaroaren 22an jaso zuen jakinarazpena.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Aginduak 11. artikuluaren 4. idatz zatian xedatzen duenez, kasuan kasuko Udalari entzuteko epe bat eman behar zaio, hamabost egunekoa, egoki deritzona azal dezan.

2002ko abenduaren 3an, Kanpezuko Udalak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu zuen lurzoruaren mugaketaren behin-behineko aldaketaren aurka, hainbat akats zeuzkala uste baitzuen, hain zuzen ere: batetik, Orbiso eta Antoñana herrietako lurzoru urbanizagarriaren zehaztapena falta zen; bestetik, Santikurutze Kanpezuko SR3 sektoreko lurzoru urbanizagarrian ez dira jaso lehengo FEVEko lurrak; eta, azkenik, eraikin kolektibo batetan eta bizitegirako lurzorua eta industria lurzorua banatzen duen izkinan hainbat akats zeuden.

Berraztertzeko errekurtsoa abenduaren 20ko 721/2002 Foru Aginduaren bitartez onetsi zen, 2002ko abenduaren 23an jakinarazi zen eta 2002ko abenduaren 30ean jaso zuen Kanpezuko Udalak.

Jakinarazpena egin ondorengo hamabost eguneko epea igaro da, aipatutako Foru Aginduaren 3. artikuluak xedatzen duen bezala, eta Kanpezuko Udalak ez du ezer ere adierazi ebazpen horren aurka.

Horregatik bada, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, hau

ERABAKI DUT:

Lehena.- Kanpezuko udalerrirako egindako Ondasun Higiezinen Zergaren pekoa den hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa onartzea, Plangintzaren Ordezko Arau berriak (abenduaren 31ko 172/1999 Foru Dekretua, apirilaren 11ko 285/2000 eta uztailaren 27ko Foru Aginduak onartu zituen) eta Testu Bateratua (urriaren 28ko 1.024/2001 Foru Aginduak onartu zuen) kontuan hartuz.

Bigarrena .- Aurreko hori gorabehera, kontuan hartu behar da, herriguneetatik kanpora egonik hiri izaerako eraikinek hartuta dauden lurzoruei buruz, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauaren 2. artikuluaren b) idatz zatiko 1, 2 eta 3 puntuetan ezarritakoa.

Hirugarrena .- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean eta Arabako Lurralde Historikoan hedatuenetakoak diren egunkarietan argitaratuko da. Gainera, 15 egunez jendaurrean ipinita egongo da, interesatuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Kanpezuko Udalaren bulegoetan egongo da jendaurrean, arau hauek xedatzen duten bezala: Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/89 Foru

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**1.176**

**ACUERDO 90/2003, del Consejo de Diputados de 18 de febrero, que aprueba definitivamente la Delimitación de Suelo Urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles realizada para el término municipal de Campezo.**

Por Orden Foral número 624/2002, de 14 de noviembre, se aprobó con carácter provisional, la nueva Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Campezo. La mencionada Delimitación de Suelo urbano se realizó recogiendo las nuevas Normas Subsidiarias de Planeamiento aprobadas por Decreto Foral número 172/1999, de 31 de diciembre, y por las Ordenes Forales número 285/2000, de 11 de abril y número 664/2000, de 27 de julio, y su correspondiente Texto Refundido, aprobado por Orden Foral número 1.024/2001, de 29 de octubre.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Campezo, disposición que se realizó con fecha 14 de noviembre de 2002, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Campezo con fecha 22 de noviembre de 2002.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Con fecha 3 de diciembre de 2002, el Ayuntamiento de Campezo presentó recurso de reposición contra la mencionada modificación parcial de la Delimitación de suelo, por considerar que existían una serie de errores en la misma, y más concretamente, por un lado en la falta de determinación de parte de suelo urbanizable del pueblo de Orbiso y el pueblo de Antoñana, por otro lado en que no se han incluido en el suelo urbanizable del Sector SR3 del pueblo de Santa Cruz, terrenos del antiguo "FEVE", y finalmente errores puntuales en un edificio colectivo y una esquina que limita el suelo residencial y el suelo industrial.

El recurso de reposición fue estimado, mediante Orden Foral número 721/2002, de 20 de diciembre, siendo comunicada con fecha 23 de diciembre de 2002 y recepcionada por el Ayuntamiento de Campezo con fecha 30 de diciembre de 2002.

Habiendo transcurrido el plazo de quince días desde la notificación, tal y como se especifica en el artículo 3º de la referenciada Orden Foral, el Ayuntamiento de Campezo no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Campezo, recogiendo las nuevas Normas Subsidiarias de Planeamiento aprobadas por Decreto Foral número 172/1999, de 31 de diciembre, y por las Ordenes Forales número 285/2000, de 11 de abril y número 664/2000, de 27 de julio, y su correspondiente Texto Refundido, aprobado por Orden Foral número 1.024/2001, de 29 de octubre.

Segundo.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

Tercero.- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición publica por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Campezo, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19

Arauak 11. artikuluaren 5. idatz zatian eta hura erregelamendu bidez garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak 7, 8 eta 9 artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko otsailaren 18a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

*Diputatu Nagusien Foru Dekretuak*

**1.155**

**25/2003 FORU DEKRETUA, otsailaren 14koa, diputatu nagusiarena. Honen bidez, 2003ko ekitaldian egiten diren gizaldeko eta larrialdiko ekintzak babesteko dirulaguntzetarako deialdia onartu da.**

Diputatu Nagusiaren Sailak, bere helburuen artean, honako hau aurreikusten du: garapen-bidean dauden herriei laguntzea, behartsuenen aldeko elkartasun-ekintzak burutzearren.

Azken garai hauetan, fenomeno atmosferikoek edo beste gertaera batzuek eragindako hondamendiak maiz gertatzen ari direla ohartuta, eta horien ondorioz munduan ezin konta ahalako giza-biziak eta ondasun materialak galtzen direla, komenigarri iritzi diogu gizaldeko eta larrialdiko ekintzak kofinantzatzeari, baldin eta horietan Arabako Lurralde Historikoan egoitza duten Gobernuz Kanpoko Erakundeek edo beste elkarte batzuek parte hartzen badute.

Ondorioz, eta dagozkidan ahalmenez baliaturik, hau

XEDATU DUT:

LEHENENGOA.- 2003. urteko ekitaldian egiten diren gizaldeko eta larrialdiko ekintzak babesteko dirulaguntzetarako deialdia onartzea; zuzkidura 36.060,73 eurokoa da.

BIGARRENA.- Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea, espedientearekin batera joango direnak.

HIRUGARRENA.- Foru dekretu honen eranskin modura doazen eskabidearen eta inprimakien eredu ofiziala onartzea.

LAUGARRENA.- 36.060,73 euroko dotazioaren zenbatekoa indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiko Aurrekontuko 02.33 lerroari dagokion partidaren kontura ordainduko da.

BOSGARRENA.- Gizaldeko eta larrialdiko ekintzak kofinantzatzeko dirulaguntzen deialdia Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko otsailaren 14a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.

2003. URTEKO DEIALDIA

**“Gizaldeko eta larrialdiko ekintzak babestea”**

*Zergatik egin gizaldeko eta larrialdiko ekintzei dirulaguntzak emateko deialdi bat?*

80ko hamarkadatik aurrera, Arabako Foru Aldundiak laguntza eta elkartasun-programei eta proiektuei laguntza ekonomikoa eman die, garapen-bidean dauden herriek aurrera egin dezaten; hala ere, 1983az geroztik bakarrik xedatu du bere aurrekontuetan xede horietarako partida bat.

Arabako Foru Aldundiak duen lankidetza eredua zabala da oso; aldez aurretik ez da inolako laguntza motarik baztertzen, baldin eta oinarrizko beharrekin lotutako arazoak konpontzeko bada; izan ere, arazoak konpontzeko irtenbideak izaera askotakoak izan daitezke. Zalantzarik gabe, hasierako oinarriak denboran zehar aldatuz joan dira eta aldioro agertu diren eskaeretara moldatuz joan dira.

Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiak 2003 urtean hogeita hamasei mila eta hirurogei euro eta hirurogeita hamahiru cent (36.060,73 euro) esleitu du gizaldeko eta larrialdiko jarduerak babesteko dirulaguntzetarako deialdirako, indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiko Aurrekontuko 1.02.3.00.06.00.461.00.02.1 kontusailaren kargura.

Arabako Foru Aldundiak proiektu bakoitzari gehienez emango dion dirulaguntza 3.906,58 euros izango da.

Dirulaguntzak oinarri hauen arabera emango dira:

de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de febrero de 2003.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

*Decretos Forales del Diputado General*

**1.155**

**DECRETO FORAL 25/2003, de 14 de febrero, del Diputado General, que aprueba la convocatoria de subvenciones para el apoyo a acciones humanitarias y de emergencia que se produzcan durante el ejercicio de 2003.**

El Departamento de Diputado General tiene previsto, dentro de sus objetivos, el apoyo a aquellos Paises en Vías de Desarrollo, con el fin de llevar a cabo actuaciones dirigidas hacia el encuentro solidario con los más necesitados.

En los últimos tiempos se vienen apreciando que, con cierta frecuencia, se están produciendo catástrofes climatológicas y de otra índole que ocasionan innumerables pérdidas de vidas humanas y de bienes materiales en el mundo, por lo que se estima oportuno el cofinanciar acciones humanitarias y de emergencia en las que estén implicadas Organizaciones no Gubernamentales u otro tipo de colectivos con sede en el Territorio Histórico de Álava.

En su virtud y haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

PRIMERO.- Aprobar la convocatoria de subvenciones para el apoyo a acciones humanitarias y de emergencia que se produzcan durante el Ejercicio del año 2003, con una dotación de 36.060,73 euros.

SEGUNDO.- Aprobar las Bases que regirán la presente convocatoria, que quedan unidas al expediente.

TERCERO.- Aprobar el modelo oficial de instancia y formularios que se acompañan como anexo al presente Decreto Foral.

CUARTO.- El importe de la citada dotación de 36.060,73 euros, se efectuará con cargo a la partida correspondiente a la línea 02.33 del vigente presupuesto del Territorio Histórico de Álava.

QUINTO.- Publicar en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, la correspondiente Convocatoria de subvenciones para la cofinanciación de apoyo a acciones humanitarias y de emergencia.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de febrero de 2003.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.

CONVOCATORIA AÑO 2003

**“Apoyo a acciones humanitarias y de emergencia”**

*¿Por qué una Convocatoria de subvenciones a acciones humanitarias y de emergencia?*

La Diputación Foral de Álava, viene colaborando desde la década de los 80 mediante aportaciones económicas a programas y proyectos de apoyo y solidaridad en el desarrollo de los Paises en Vías de Desarrollo, pero es desde 1983 cuando se contempla en sus presupuestos una partida presupuestaria específica destinada a tales fines.

La concepción filosófica del modelo de cooperación de la Diputación Foral de Álava es muy amplia; no se descarta a priori ningún tipo de ayuda que realmente responda a las causas de la problemática que se padece dentro del concepto de las necesidades básicas. Los medios que necesitan para afrontarlas pueden ser de diversa índole. No cabe duda de que los principios iniciales han ido evolucionando a lo largo del tiempo, acomodándose a las peticiones que periódicamente se han ido planteando.

Con tal fin la Diputación Foral de Álava destina en el año 2003 la cantidad de treinta y seis mil sesenta con setenta y tres euros (36.060,73 euros) a la Convocatoria de subvenciones a Apoyo a acciones humanitarias y de emergencia, con cargo a la partida 1.02.3.00.06.00.461.00.02.1 del vigente Presupuesto del Territorio Histórico de Álava.

La subvención de la Diputación foral de Álava a cada Proyecto será, como máximo de 3.906,58 euros.

La concesión de estas subvenciones se ajustará a las siguientes